

EKOPAÑAL



AAk sortutako irudia. ChatGPT-rekin sortutako irudia (2025). Deskribapena: Ekopañal fikziozko enpresako sortzaileak beraien produktuak harro erakusten. Hemendik hartu da: <https://chatgpt.com/>

ITZIAR, AITZOL, LUCIA eta IRATI.

ENPRESAREN AURKEZPENA:

Gure negozio eredua sortu genuenetik, ilusioz eta esfortzu handiz lan egin dugu proiektuan, gizartean aspaldidanik presente dagoen arazo bati irtenbidea emateko asmoz. Haur jaioberriak dituzten gurasoei eta haur-eskolei laguntzea da gure helburua, izan ere, pixoihalen erabilera funtsezkoa da lehen hilabeteetan, baina, aldi berean, gero eta garestiagoak bilakatzen ari dira eta ingurumenari kalte handia eragiten diote.

Horren aurrean, birziklagarriak diren pixoihal batzuk sortzea erabaki dugu pixoihal hauek behin eta berriro erabiltzeko aukera egongo da eta horrela gutxiago kutsatzeaz gain guraso nahiz haurreskolak dirua aurreztuko dute.